



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

UDAL INFORMAZIOA – 2017ko abuztua

Ondoko lerro hauetan herriko hainbat konturen berri eman nahi dizuegu.

ALKATE ALDAKETA

2015ean udal-taldea osatu genuenean, agintaldi erdian alkate aldaketa eginen genuela adostu genuen. Orduan solastu bezala, agintaldia bukatzeko gelditzen diren bi urteetan Mentxu Peña izanen da alkatea, eta alkate ordea berriz, Juan Migel Almandoz.

AUZOLANA

Gai honen inguruan, berriz ere oroitarazi nahi dizuegu auzolana egiteko asmoa duzuela **Herriko Etxean jakinarazi** behar dela. Honela, auzolanean dabilen bakoitzaren asegorua tramitatu eta auzolana nork egin duen jakinen genuke.

PARKEA

Haur parkean moto eta autoarekin norbait sartu eta ibili denez, ohartuak izanen zarete kate bat paratu behar izan dugula sarrera ixteko asmoz. Honen bidez, parkea denona denez, behar bezala errespetatu eta erabiltzeko eskatu nahi dizuegu.

ZAKURRAK

Gogorarazi nahi dizuegu zakurren jabe zareten guztion ardura dela herriko karriketan zakurrek kakarik ez egitea edo kaka horiek biltzea. Denon onerako herria garbi mantendu behar baitugu.

HONDAKINAK

Jakinen duzueenez, hondakinak bildu eta kudeatzeko enpresak badaude. Beraz, obratako hondakinak ezin dira ez mendian eta ez pista bazterretan bota.

HERRIKO BESTAK

Abuztuaren 14tik 17ra ospatuko ditugun gure bestetako ekintzetan parte-hartzera gonbidatzen zaituztegu guztiak. Denok elkarrekin eta elkar errespetatuz ongi pasatzea nahi dugu. Urte guztian zehar bezala, bestetan ere herria zain dezagun, merezi du eta!.

GOIKO KARRIKA BESTETAN

Trafikoa arintze aldera, herriko bestetan Goiko Karrika ibilgailuentzat noranzko bakarrekoa izanen da. Herrira sartzeko Goiko Karrikatik pasako gara eta herritik ateratzeko, berriz, Goienburutik pasa beharko dugu.

ZUENA DA HITZA!

Xoko honetan udalari jakinarazi nahi diozuna paratu dezakezu: zure proposamenak, kritikak, hobekuntzak, iradokizunak, etab. Zure iritzia idatzi eta papera plazan honetarako espresuki paratu dugun ontzian uzten ahal duzu. Eskerrak aunitz zuen ekarpenengatik!



IRADOKIZUNAK:

